

## Okupazioaren kontrako epaiketa azkarrak indarrean dira gaurtik aurrera

---

UNAI LOMANA URIBEZUBIA :: 03/04/2025

Gaurtik aurrera etxebizitza bat "usurpatua" izan dela edo bertara sartzeko "bortxa" erabili dela uste bada, gehienez hamabost egunetara ezarriko da epaia.

Legeek etxebizitzaren okupazioari dagokion auzibidea nabarmenki eraldatuko dute. Moldaketak azaroaren 14an EAJk egindako emendakin batekin eztabaidatu ziren, eta PP, UPN, CC, ERC, Junts eta EH Bilduren aldeko botoak izan zituen. EH Bilduk ondoren barkamena eskatu zuen, aldeko botoka eman izana "hutsegitea" izan zela adierazita. Legea Espainiako Senatura iritsi zenean, PPk betoa ezarri zuen; azkenean kongresuak Podemos, Sumar eta PSOEn baiezkoekin **blokeoa gainditu zuen**.

### Legearen nondik norakoak

Gaurtik aurrera etxebizitza bat "usurpatua" izan dela edo bertara sartzeko "bortxa" erabili dela uste bada, azkarrago artatuko da auzia eta, beraz, gehienez hamabost egunetara ezarriko da epaia -epaileak beharrezko dokumentazio guztia eskuratzen duenetik izango dira baliozkoak egunak-. Hala ere, bi aldeek auzibidera joan aurretik negoziaketa bat abiatu beharko dute, bide judizialek kanpo irtenbidea aurkitzeko asmoz.

Umeak dituzten langile familien kasuan, Parekotasunari buruzko Legea indartuko da. Orain, hamabi urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi egokitua eskatzen duten edo lanaldi hori baliatzen ari diren langileen kaleratzeak deuseztatuko dira. Halaber, enpresen ez-ordaintze sistematikoak saihesten saiatzeko sistema bat ere ezartzen du beharginentzat. Urte berean hamabost egunetik gorako atzerapenak edo hiru ez-ordaintze jasaten dituzten beharginek lanpostua utzi eta kalte-ordaina jaso ahal izango dute.

Pisu turistikoari dagokienez, haien erregulazioa aldatzen du. Jabeek komunitatearen onarpena beharko dute etxebizitza bat jarduera turistikorako bideratzeko, eta gutxienez, bizilagunen hiru bostenak eman beharko du baimena. Gainera, tokiko agintariei eskumenak transferitzen zaizkie, eta orduan, jarduera turistikoa etetea eskatu ahal izango dute, pisu turistikoek udal-lizentzia egokirik gabe jarduten duten kasuetan.

Okupazioaren auzian bezala, kontsumitzaileek eta finantza erakundeek negoziaketa prozedura bat abiatuko beharko dute abusuzko hipoteka-klausulen kasuetan, auzitegietan demanda bat aurkeztu aurretik.

Okupazioaren kontrako epaiketa azkarrak indarrean sartuko dira ostegunetik aurrera

---

<https://eh.lahaine.org/okupazioaren-kontrako-epaiketa-azkarrak-indarrean>